Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abuztuaren 19a, astelehena — 158 — Lunes, a 19 de agosto de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ALEGIAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2024ko maiatzaren 29an egindako ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onespena eman zion zibismoari buruzko ordenantzari, bide publikoaren erabilera, garbiketa, eta herriko paisaiaren babesa arautzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 49.b artikuluak xedatzen duena betez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, baita Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-taulan ere, eta informazio publikorako ikusgai egon da 30 egun baliodunez. Ez da batere erreklamaziorik izan.

Hortaz, behin betiko onartutzat jo da zibismoari buruzko ordenantza, bide publikoaren erabilera, garbiketa, eta herriko paisaiaren babesa arautzen dituena.

Akordio honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Alegia, 2024ko abuztuaren 5a.—Regina Sorarrain Lasa, alkatea. (5951)

*Zibismoari buruzko ordenantza, bide publikoaren erabilera, garbiketa, eta herriko paisaiaren babesa arautzen dituena.*

### ARRAZOIEN AZALPENA

Udalerri bat eraikin, kale, parke eta plaza multzo hutsa baino gehiago da. Udalerria herritarrek eurek osatzen dute, batez ere. Horiexek dute, erakundeekin zein eragile sozial eta ekonomikoekin batera, udalerria eraikitzeko zeregin kolektiboa, elkarbizitza hobetzeko asmoz, gainera.

Herria egiteko ardura partekatuak jokabide zibikorako jarraibide batzuk eskatzen ditu, herritarren askatasunari bide emanda, besteenganako begirunea muga bakarra dela, hiri eta natur ondarea eta ondasun publikoak zaintzeko zein herritar elkarbizitza armoniatsua bermatzeko.

Alegia gizarte kohesionatuagoko herri garbia, zibikoa eta abegitsua bihurtzeko eta pertsonen eskubideak errespetatu ez ezik, ondarea, gune publikoak eta herriko paisaia babesten dituen herria egiteko helburuak alegiar guztien partaidetza eta konplizitatea eskatzen dituen herri eredu bat eratzeko asmoa dakar berez.

Zibismoz jokatzea dugu alegiarrok Alegiarrenganako eta gainerako herritarrenganako konpromisoa. Gutxiengo baten jokabide hezigabeak denon ondare diren ondasun eta espazioei kalte egiteaz gain, elkarbizitzari eraso egiten diote, herritarraren eskubide eta eginbeharrak betetzen dituzten Alegiatar gehien handi batenganako elkartasunik eta begirunerik gabeko jarrera ere erakusten du.

## AYUNTAMIENTO DE ALEGIA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el 29 de mayo de 2024, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora del civismo, reguladora del uso, la limpieza de la vía pública y la protección del paisaje urbano.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49.b de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el anuncio fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y expuesto al público durante 30 días hábiles. No ha habido ninguna reclamación.

En consecuencia, se da por aprobada definitivamente la Ordenanza reguladora del civismo, reguladora del uso, la limpieza de la vía pública y la protección del paisaje urbano.

Contra el presente acuerdo no cabe recurso en vía administrativa.

No obstante, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contar desde el día siguiente al de la publicación del anuncio.

Alegia, a 5 de agosto de 2024.—La alcaldesa, Regina Sorarrain Lasa. (5951)

*Ordenanza sobre el civismo, reguladora del uso, la limpieza de la vía pública y la protección del paisaje urbano.*

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Un municipio es algo más que un conjunto de edificios, calles, parques y plazas. El municipio lo forman fundamentalmente sus vecinos y vecinas, quienes comparten con instituciones, agentes sociales y económicos, la tarea colectiva de construir el municipio y de hacerlo con la idea de mejorar la convivencia.

La responsabilidad compartida de hacer municipio exige seguir unas pautas de comportamiento cívico que permitan la libertad de los vecinos y vecinas con el límite esencial del respeto a los demás, que preserven el patrimonio urbano y natural, así como los bienes públicos, y garanticen la convivencia en armonía.

Hacer de Alegia un municipio más cohesionado socialmente, cívico, limpio y acogedor, respetuoso con los derechos de las personas, protector del patrimonio, los espacios públicos y el paisaje urbano, es tratar de configurar un modelo de municipio que requiere la implicación y la participación de todos y todas las Alegitarras.

Actuar con civismo es un compromiso que cualquier Alegitarra tiene no sólo con Alegia, sino también con sus convecinos y convecinas. Los comportamientos incívicos de una minoría además de dañar bienes y espacios que son patrimonio de todos, suponen un ataque a la convivencia, una actitud de insolidaridad y falta de respeto hacia una gran mayoría de Alegitarras que asumen cívicamente sus derechos y deberes ciudadanos.

EK\CV GAO-I-2024-05951

Baina, gainera, horren ondorioz milaka euro erabili behar izaten dira urtero-urtero garbitze eta artatze lanetan, dirutza hori beste zerbaitetan erabili beharrean. Gure herriko gune publikoak eta ondarea errespetatzea jasangarritasuna hobetzea da, eta bidea ematen du aurrekontua, zentzuz, gauzarik beharrezkoenetarako erabiltzea, gainerako herritarrekin solidario izatea eta Alegia denon artean eraikitzeko proiektuan partaide izatea.

Zeregin horretan, jokabide hezigabeak isunen bitartez zuzentzea baino garrantzizkoagoa da ikastetxeek, familiak, herritar mugimenduak eta Alegiar guztiek parte hartzea paisaia babesteko zein herria eta Alegiar guztion zerbitzuan den ondarea errespetatzeko eginkizun kolektibo horretan.

Gure herrian, beste askotan bezala, arazoak izaten ditugu pintadak, graffitiak, kartelak, etxeko animalien gorotzak, zorura zikinkeria botatzea, kontrolik gabeko publizitatea, jokabide bandalikoak kalte eragindako hiri altzari eta haur jolastokiak, zabor edukiontziak gaizki erabiltzea, isurketa ilegalak eta abar.

Alegiako Udalak, herrian elkarbizitza eta zibismo giroa ezartzeko nahian, honako ordenantza hau prestatu du, eta beste tresna bat izan nahi du Alegiako herritar guztien bizi kalitateari kalte egiten dioten jarrera eta jokabide utzikeriazko eta arduragabeak zuzentzeko.

Horrela, ordenantza honen bitartez, batez ere, bide eta espazio publikoetan jokatzeko arau oinarrizko batzuk ezarri nahi ditu, pertsonen askatasuna baimentzeko, oinarritzat hartuta herriko eta natur ondarea zein bizi garen ingurumena ahalik eta gehien errespetatzea eta zaintzea.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua.*

Honako ordenantza honek helburu du herritarrek bide publikoan duten jokabidea eta bideen txukuntasuna zaintzea, bide publikoan izaten diren erabilerak kontuan:

— Bide publikoaren erabilera arrunta.

— Bide publikoaren erabilera berezia.

— Bide publikoaren erabilera pribatiboa.

— Zerbitzu publikoen euskarri moduan erabiltzea.

— Obra publiko eta pribatuak egiteko euskarri nahitaezko moduan erabiltzea.

*2. artikulua. Aplikazio-eremua.*

Honako ordenantza hau Alegiako udalerri osoan egongo da indarrean.

*3. artikulua. Bide publikoaren erabileraren gaineko printzipio orokorrak.*

1. Herriko bideak, espazio publikoak, instalazioak igogailu publikoak barne hartuta eta hiri altzariak herritar guztiok erabiltzekoak dira, ondasun horietako bakoitzaren ezaugarrien arabera, oinarritzat hartuta banako askatasuna eta beste pertsonenganako begirunea, biak behar bezala uztartu beharrekoak direla.

2. Bide publikoan gauzatzen diren jarduerek ezin dezakete mugatu beste herritarren erabilera eskubidea, erabilera komun berezirako edo pribatiborako lizentzia edo emakida eduki ezean.

3. Alegiako Udalak erabakiko du bide publikoan zein erabilera eta jarduera gauzatu daitekeen, baita bateragarri egingo ere, lehentasunak izendatuko dituela herri onura oinarri.

Pero es que, además, todo ello conlleva emplear miles de euros anualmente en labores de limpieza y mantenimiento que podrían tener otro destino. Respetar los espacios públicos y el patrimonio de nuestro municipio es mejorar la sostenibilidad, permite aplicar el presupuesto con racionalidad a lo más prioritario, ser solidario con el resto de vecinos y vecinas y compartir el proyecto de construir entre todos y todas Alegia.

En esta labor, la participación de los centros educativos, la familia, el movimiento ciudadano y de los y las Alegitarras en general, en la tarea colectiva de proteger el paisaje, respetar el municipio y todo un patrimonio puesto al servicio de los y las Alegitarras es más importante que corregir los comportamientos incívicos por medio de sanciones.

En nuestro municipio, como en tantos otros, sufrimos los problemas ocasionados por las pintadas, grafitis y cartelería, excrementos de animales domésticos, vertidos de porquerías al suelo, publicidades incontroladas, mobiliario urbano y juegos infantiles deteriorados por actos vandálicos, mal uso de los contenedores de basuras, vertidos ilegales, etc.

El Ayuntamiento de Alegia, en su afán por mejorar la presencia del municipio y la convivencia vecinal, ha elaborado la presente Ordenanza como una herramienta más en la corrección de actitudes y comportamientos negligentes e irresponsables.

En este sentido, lo que se pretende con esta Ordenanza es establecer fundamentalmente unas normas básicas de comportamiento en las vías y demás espacios públicos que permitan la libertad de las personas dentro del respeto al patrimonio urbano y natural del municipio y el cuidado del entorno en el que vivimos.

TÍTULO PRELIMINAR

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación del comportamiento ciudadano en la vía pública así como de la limpieza de la vía pública, en relación con los diversos usos que en ella se efectúan:

— Uso normal de la vía pública.

— Uso especial de la vía pública.

— Uso privativo de la vía pública.

— Uso como soporte de servicios públicos.

— Uso necesario para la realización de obras públicas y privadas.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

La presente Ordenanza es de aplicación en todo el término municipal de Alegia.

*Artículo 3. Principios generales sobre la utilización de la vía pública.*

1. Las vías públicas, los espacios públicos, las instalaciones, en las cuales se incluyen los ascensores públicos, y el mobiliario urbano ubicado en ellas, son destinados al uso general y disfrute de la ciudadanía, según la naturaleza respectiva de los bienes y de acuerdo con los principios de libertad individual y respeto a las demás personas, a combinar adecuadamente.

2. Las actividades que se desarrollan en la vía pública no pueden limitar el derecho de los demás al uso general, excepto en el caso de que se disponga de licencia o concesión para el uso común especial o el uso privativo.

3. Corresponde al Ayuntamiento de Alegia determinar y armonizar los usos y actividades que se desarrollen en la vía pública, dando preferencia a aquellos que en cada momento sean prioritarios para el interés público.

EK\CV GAO-I-2024-05951

4. Erabilera komun orokorrek lehentasuna izango dute beste mota bateko erabileren aldean, nahiz eta beste horiek bateratzen eta bideragarri egiten ahalegindu, interes pribatuari eusteko ezinbestekoak badira eta herri onurari kalte handirik sortzen ez badiote.

*4. artikulua. Erabilitako kontzeptuen terminologia.*

Ordenantza honetan honako kontzeptu eta adiera hauek erabiliko dira:

1. Bide publikoa: Ordenantza honen ondorioetarako, bide publikotzat jotzen dira kaleak, plazak, zirkulazio bideak, pasealekuak, etorbideak, espaloiak, parkeak, lorategi aldeak, bidetunelak eta herritar guztiek erabili beharreko gainerako ondasun publikoak. Gainera, arau honen xedapenak aplikatuko dira Udalaren gune urbanizatu gabeetan eta Udalak gestionaturiko gainerako espazio publikoetan.

2. Altzari urbanoak: Izendapen horrek barne hartzen ditu zuhaitzak, eserlekuak, zakarrontziak, jolastokiak, iturriak, farolak, seinaleak, zaborrontziak, estatuak, eskulturak, lore potoak, markesinak eta Udalak bide publikoetan ezarritako gainerako elementuak.

3. Hondakinak: 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoren arabera, hondakintzat jotzen da bere edukitzaileak botatzen duen edo botatzeko asmoa edo obligazioa duen edozein substantzia edo gauza.

Etxe, denda, bulego eta zerbitzuetako hondakinak eta ezaugarriengatik edo osaeragatik etxeko hondakinen baliokidetzat jo daitezkeenak, hondakin urbanotzat joko dira.

Etxeko hondakintzat jotzen dira etxeko jardueraren ondorioz etxebizitzetan bertan sortzen direnak. Etxeko hondakintzat jotzen dira baita ere zerbitzuetan eta industrietan sortu eta aurrekoen antzekoak direnak.

Kategoria honetan sartzen dira baita ere etxeetan sortzen diren hondakinak, esaterako, aparailu elektrikoak eta elektronikoak, arropa, pilak, metegailuak, altzariak eta etxeko eraikuntzako eta konponketarako obra txikietatik datozen hondakinak eta zaborrak.

Era berean, etxeko hondakintzat joko dira bide publikoen, berdeguneen eta jolasguneen garbiketan sortutako hondakinak, etxeko animalia hilak eta abandonatutako ibilgailuak.

4. Tresna arriskutsuak: Ordenantza honen arabera, tresna arriskutsutzat joko dira mozteko eta min egiteko balio dezaketen tresna guztiak, baldin eta beren ezaugarri eta nolakotasunengatik herritarren osotasun fisikoa murritz badezakete, baita ere lanbideetan edo kiroletan ohiko diren tresnak, baldin eta eginak izan diren erabilerarekin bat ez datozen zirkunstantzia berezietan eta noizbehinkakoetan eramaten badituzte. Zerrenda orientagarri moduan, hona hemen horietako batzuk: Mailuak, borrak, beisbol bateak, borroka arteetan edo ukipen fisikozko kiroletan erabiltzen diren tresnak, kateak, metalezko barrak, pioletak eta abar.

5. Eskaletza: Ordenantza honi dagokionez, eskaletzatzat jotzen da bide publikoan limosna eskean jardutea.

6. Establezimendua: Aipatu ondorioetarako, establezimendutzat jotzen da aurretik udal lizentzia behar duen jarduera gauzatzeko lokala.

7. Obrak: Halakotzat joko dira eraitsi, urbanizatu, eraiki, birgaitu eta zaharberritzeko lanak, betelanak, lubakiak ebakitzea, kanalizazioak prestatzea eta antzekoak.

*5. artikulua. Lizentzia eta baimenak.*

1. Udalaren obra lizentzietan eta ordenantza honek xedatutako baimenetan bermea eratzeko eska liteke, ondare publikoaren txukuntasun eta apaindurarenganako eginbeharrei erantzuteko. Berme horren zenbatekoa obraren aurrekontuaren % 2ko portzentaia ezarriz kalkulatuko da.

4. Los usos comunes de carácter general tendrán preferencia sobre otro tipo de usos, si bien se procurará armonizar y hacer posible estos últimos cuando sean indispensables para el mantenimiento de los intereses privados y no comporten grandes perjuicios al interés público.

*Artículo 4. Terminología de conceptos utilizados.*

La terminología de los conceptos utilizados en esta Ordenanza es la siguiente:

1. Vía pública: A efectos de la presente Ordenanza, se consideran vía pública las calles, plazas, vías de circulación, los paseos, avenidas, aceras, parques y zonas ajardinadas, túneles viarios y demás bienes de uso público destinados al uso común general de la ciudadanía. Asimismo, las previsiones de esta norma serán de aplicación en zonas de propiedad municipal no urbanizadas y otros espacios públicos gestionados por el Ayuntamiento.

2. Mobiliario urbano: Se incluyen en esta denominación los árboles, bancos, papeleras, juegos, fuentes, farolas, señalizaciones, contenedores de residuos, estatuas, esculturas, jardineras, marquesinas y demás elementos colocados por el Ayuntamiento en las vías públicas.

3. Residuos: De conformidad con la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, recoge que se entiende por residuo cualquier sustancia u objeto que su poseedor deseche o tenga la intención o la obligación de desechar.

Los residuos domésticos, los de comercios y de oficinas y servicios, así como aquellos otros residuos que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los residuos domésticos, tendrán la consideración de Residuos Urbanos.

Se consideran residuos domésticos los generados en los hogares como consecuencia de las actividades domésticas. Se consideran también residuos domésticos los similares a los anteriores generados en servicios e industrias.

Se incluyen también en esta categoría los residuos que se generan en los hogares, como aparatos eléctricos y electrónicos, ropa, pilas, acumuladores, muebles y enseres así como los residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria.

Igualmente tendrán la consideración de residuos domésticos los residuos procedentes de la limpieza de vías públicas, zonas verdes y áreas recreativas, los animales domésticos muertos y los vehículos abandonados.

4. Instrumentos peligrosos: A los efectos de la presente Ordenanza, tendrán la consideración de peligrosos todos los instrumentos cortantes, contundentes y aquellos que por su naturaleza y características sean susceptibles de causar menoscabos a la integridad física de la ciudadanía, inclusive aquellos objetos propios de los ámbitos profesionales o deportivos que se porten en circunstancias especiales y temporales que no correspondan con la utilización para los que fueran concebidos. A título meramente enunciativo se citan los siguientes: Martillos, mazas, bates de beisbol, objetos empleados en artes marciales o en deportes de contacto físico, cadenas, barras de metal, piolets, etc.

5. Mendicidad: A los efectos de esta Ordenanza, se considera mendicidad pedir limosna en la vía pública.

6. Establecimiento: A los indicados efectos, se entiende por establecimiento todo local destinado a desarrollar actividades sujetas a previa licencia municipal.

7. Obras: Se entenderán por tales las obras de derribo, de urbanización, de construcción, rehabilitación, reforma, movimiento de tierras, zanjas, canalizaciones y cualesquiera otras análogas.

*Artículo 5. Licencias y autorizaciones.*

1. En las licencias municipales de obras y en las licencias y autorizaciones previstas en esta Ordenanza podrá imponerse la constitución de una fianza, cuyo importe se calculará aplicando el porcentaje del 2 % del presupuesto de la obra para responder de las obligaciones referentes a la limpieza y el ornato público.

EK\CV GAO-I-2024-05951

2. Azkenak beti emango dira epe jakin baterako eta epea amaitu baino lehengo ere indargabe utz daitezke.

II. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOEN IZENAK ETA ERROTULUAK

*6. artikulua. Bide publikoen izendapena.*

Bide publiko bakoitzak bere izendapena izango du, eta izendapena Alegiako Udalbatzarrak onartu beharko du.

*7. artikulua. Bide publikoen errotulazioa.*

1. Bide publikoen errotulazioak zerbitzu publikoaren izaera du, eta plaka, zutoien edo antzekoren bat erabilita egin ahal izango da, eta bide publiko bakoitzaren sarreran eta irteeran, gutxienez, kokatuko dira. Plazetan, eraikinik ikusgarrienean eta sarbide nagusietan jarriko dira errotuluak.

2. Errotuluak eraikin pribatuetako fatxadetan jar litezke, eta jabeek jartzea ezinbestean onartu beharko dute.

I. TITULUA

HERRITARREN JOKABIDEA BIDE PUBLIKOAN

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*8. artikulua. Bide publikorako jokabide arau orokorrak.*

1. Herritarrek eskubidea dute herriko bide eta gune publikoak aske erabiltzeko, eta askatasun hori errespetatu behar diote. Eskubide hori zibismoz erabili behar dute, eta mugatzat ditu ondasun publikoen erabileraren gaineko xedapenak eta beste pertsonak zein ondasun publikoak errespetatu beharra.

2. Inork ezin du, bide publikoan duen jokabidea dela bide, beste pertsonen eskubideak edo jarduteko askatasuna gutxietsi, ezta denok onartu ohi dituzten konbikzioak edo elkarbizitza arauak ofenditu, beraz, jokaera exhibizionistak galeraziak daude.

3. Ezin da herritarren atsedenaldia eragozten duen zaratarik sortu, ez egunez ez gauez.

4. Herritarrek ez dute bide publikoan ekintza abusuzko, nahierarako edo diskriminatzailerik eta sexistarik egin behar, ezta bortxa fisiko edo moralik dakarrenik ere.

*9. artikulua. Elkartasuna bide publikoan.*

1. Udalak herritarra akuilatuko du bide publikoan elkartasunezko jokabide erakustera, ibiltzeko edo orientatzeko laguntza behar duen lagunari, istripua izandakoari edo halako arrisku egokiera bereziren batean dagoenari laguntzeko. Sustatu egingo du, bestalde, ibiltzerakoan edo altzari urbanoak erabiltzerakoan pertsona behartuenei lehentasuna ematea, baita elkartasun eta heziera oneko bestelako jarrerak ere.

2. Ume edo minusbaliatu galdurik zein arazo fisiko edo psikiko nabarmen bat duen pertsonarik aurkituz gero, herritarra behartuta egongo da poliziari esatera, haiek ardura daitezen pertsona hori babesteaz eta zaintzaile arduradunengana eramateaz.

*10. artikulua. Ondasun publikoen erabilera.*

Ondasun publikoak beren ezaugarrien arabera erabili behar dira, behar bezala eta gainerako herritarren erabilera eskubidea beti ere errespetatuta.

2. Estas últimas se concederán siempre por un plazo determinado y podrán ser revocadas antes de que transcurra el mismo.

CAPÍTULO II. DENOMINACIÓN Y ROTULACIÓN DE LAS VÍAS PÚBLICAS

*Artículo 6. Denominación de las vías públicas.*

Las vías públicas se identificarán con un nombre, que ha de ser aprobado por el Ayuntamiento Pleno.

*Artículo 7. Rotulación de las vías públicas.*

1. La rotulación de las vías públicas tiene carácter de servicio público, y podrá efectuarse mediante una placa, poste o similar, que se fijará en un lugar bien visible, como mínimo en la entrada y salida de cada vía pública. En las plazas será en el edificio más preeminente y en sus principales accesos.

2. Esta rotulación podrá llevarse a cabo en fachadas de inmuebles privados, cuyos propietarios y propietarias estarán obligados a consentirlo.

TÍTULO I

COMPORTAMIENTO CIUDADANO EN LA VÍA PÚBLICA

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 8. Normas de comportamiento general en la vía pública.*

1. La ciudadanía tiene derecho a utilizar libremente la vía y los espacios públicos del municipio, y ha de ser respetada en su libertad. Este derecho, que debe ser ejercido con civismo, está limitado por las disposiciones sobre el uso de los bienes públicos y por el deber de respetar a otras personas y a los bienes privados.

2. Nadie puede, con su comportamiento en la vía pública, menospreciar los derechos de las demás personas, ni su libertad de acción, ni ofender las convicciones ni las pautas de convivencia generalmente admitidas, no permitiéndose las actitudes exhibicionistas.

3. No está permitido provocar ruidos que perturben el descanso de los vecinos, ni de día ni de noche.

4. Toda persona se abstendrá de realizar en la vía pública prácticas abusivas, discriminatorias, sexistas o que comporten violencia física o moral.

*Artículo 9. De la solidaridad en la vía pública.*

1. El Ayuntamiento estimulará el comportamiento solidario de la ciudadanía en la vía pública con el fin de prestar ayuda a las personas que así la necesiten para transitar u orientarse, que hayan padecido accidentes o se encuentren en circunstancias de riesgo. Se fomentará también la costumbre de ceder la preferencia en el paso o en el uso del mobiliario urbano a las personas que más lo necesiten, así como otras actitudes de solidaridad y educación.

2. Todas las personas que encuentren niños, niñas, personas discapacitadas extraviadas o personas en situación de evidente estado de anomalía física o psíquica deben ponerlo en conocimiento de los y las agentes de la autoridad, quienes se harán cargo de su protección y restitución a las personas responsables de su tutela.

*Artículo 10. Uso de los bienes públicos.*

Los bienes públicos deben ser utilizados de acuerdo con su naturaleza, haciendo un buen uso de los mismos y respetando siempre el derecho que el resto de ciudadanos y ciudadanas poseen también para su disfrute.

EK\CV GAO-I-2024-05951

*11. artikulua. Udal agintaritzaren agenteen eta zerbitzuen jokabidea.*

1. Agintaritzaren agenteek eta udal zerbitzuetako kideek noiznahi tratatuko dituzte herritarrak kortesiaz eta zuzentasunez, baita laguntza eta babesa eman ere. Jokatzerakoan beti emango dizkiote herritarrari ekintzen zioen eta helburuen gaineko azalpenak.

2. Agintaritzaren agenteek aginduak eta jarraibideak eman diezazkiokete herritarrari, ordenantza honetan jasota dauden xedapenak betetzea bermatzeko asmoz.

3. Agintaritzaren pertsonen gaineko aginmena erabili behar denean, gertaera larrietan eta 1. atalaren arabera jokatuta, ezinbestekoak diren ekintzak baino ez dira erabiliko, eragindako lagunen duintasuna guztiz errespetatuta.

II. KAPITULUA. JOKABIDE ZIBIKOA

*12. artikulua. Altzari urbanoak eta espazio publikoak babestea.*

1. Herritar guztiek herriko altzari urbanoak ondo erabili behar dituzte, haiek errespetatuta eta artapen zein erabilera arruntak ez galarazteko moduko kalterik ez egiteko moduan usatuta.

2. Debekatuta daude altzari urbanoak zatartu, zikindu edo hondatzen dituzten edo halakoak sortzeko moduko ekintza guztiak, batez ere honako hauek:

a) Jarlekuak erabilera arruntez bestela erabiltzea, beraz, galarazita egongo da zapaltzea, kokalekuetatik kentzea, apurtzea, zikintzea eta, oro har, erabilera edo artapen egoera honda dezakeen edozer.

b) Debekatuta dago haur jolastokiak hondatu edo suntsitzeko moduan erabiltzea, baita pertsona nagusiek edo joko bakoitzerako adierazitako adinetik gorako adin txikiek erabiltzea.

c) Debekatuta dago zaborrak, txikleak edo paperak botatzea zakarrontzietatik kanpo.

d) Galarazita dago zakarrontziak iraultzea edo errotik ateratzea, baita halakoen funtzionaltasunari eta/edo itxurari kalte egiten diotenak ere.

e) Debekatuta dago zakarrontzietara eta hondakin urbanoetarako edukiontzietara tresna edo gauza arriskutsuak botatzea. Hartara, tresna edo gauza arriskutsutzat joko dira lagunei kalte egin diezaiketenak: Animaliak, animalien gorpuzkinak, xiringak, estupefazienteak kontsumitzeko tresnak, gaixotasunak kutsatu edo zabaldu ditzaketen osasun atentzioko materialak, droga toxikoak, estupefazienteak, produktu kimikoak, erradioaktiboak, piroteknikoak edo leherkariak.

f) Debekatuta dago edozein objektu edo hondakin solido zein likido ibaira botatzea.

g) Debekatuta dago iturri publikoetako hodiak, txorrotak eta beste osagaiak erabilera arruntetik kanpo erabiltzea.

h) Debekatuta dago zuhaitzak, farolak, estatuak, seinaleak eta herriko bestelako apaingarriak gora igotzeko, kulunkatzeko edo beste edozertarako erabiltzea, baita halakoak hondatzeko moduko ekintzarik egitea ere.

i) Debekatuta dago bide publikoan sua piztea edo produktu piroteknikoak erabiltzea udalaren eta beste administrazio eskudunen baimenik gabe. San Joan bezperako suek eta antzekoek udal baimena beharko dute.

*Artículo 11. Comportamiento de las y los agentes de la autoridad y los servicios municipales.*

1. Las y los agentes de la autoridad y las personas que integran los servicios municipales tratarán en todo momento con corrección y cortesía a los ciudadanos y ciudadanas, a quienes auxiliarán y protegerán. En sus intervenciones proporcionarán la información apropiada sobre las causas y finalidades de sus actuaciones.

2. Las y los agentes de la autoridad podrán dar a cualquier persona las órdenes e instrucciones oportunas en orden a garantizar el cumplimiento de las determinaciones contenidas en la presente Ordenanza.

3. En los casos de gravedad y tras actuar conforme al apartado 1.º, en que sea necesario utilizar el mandato de autoridad sobre las personas, se llevarán a cabo los actos de fuerza estrictamente indispensables, con pleno respeto a la dignidad de las personas afectadas.

CAPÍTULO II. DEL COMPORTAMIENTO CÍVICO

*Artículo 12. Protección del mobiliario urbano y de los espacios públicos.*

1. Es obligación de toda persona hacer un buen uso del mobiliario urbano existente en el municipio, debiendo éste ser respetado y utilizado de tal forma que no sufra deterioro que impida su normal conservación y uso.

2. Quedan prohibidas las acciones que ensucien, produzcan daños o sean susceptibles de producirlos en el mobiliario urbano y, en concreto, los siguientes actos:

a) El uso de bancos de forma contraria a su natural utilización, no pudiendo pisotearlos, ni arrancarlos del lugar en que estén colocados, ni romperlos, ni mancharlos y, en general, todo aquello que perjudique su uso o deteriore su conservación.

b) Queda prohibida la utilización de los juegos infantiles de forma indebida que los pueda dañar o destruir, así como la utilización de los mismos por parte de personas adultas o por parte de menores de edad superior a la indicada en el juego.

c) Queda prohibido arrojar desperdicios, chicles o papeles fuera de las papeleras a tal fin establecidas.

d) Queda prohibido volcar o arrancar las papeleras, así como otros actos que deterioren su funcionalidad y/o aspecto.

e) Queda prohibido arrojar instrumentos u objetos peligrosos en las papeleras y contenedores destinados a los residuos urbanos. A estos efectos, se considerarán instrumentos u objetos peligrosos todos aquellos susceptibles de generar daños a las personas, tales como animales y restos de animales, jeringuillas y útiles para el consumo de sustancias estupefacientes, materiales utilizados en la atención sanitaria que puedan ser susceptibles de contagiar o propagar enfermedades, así como todo tipo de drogas tóxicas, estupefacientes y productos químicos, radioactivos, pirotécnicos o explosivos.

f) Queda prohibido arrojar cualquier objeto y residuo sólido o líquido al río.

g) Queda prohibida toda manipulación en cañerías, grifos y demás elementos de las fuentes públicas que no sean propias de su funcionamiento normal.

h) Queda prohibida cualquier acción o manipulación que perjudique a los árboles, farolas, estatuas, señales y demás elementos decorativos existentes en el municipio, así como cualquier acto que deteriore los mismos.

i) Queda prohibido hacer fuego y actividades pirotécnicas en la vía pública sin la preceptiva autorización municipal y la de las Administraciones competentes. Las hogueras de la víspera de San Juan y similares requerirán la preceptiva autorización municipal.

EK\CV GAO-I-2024-05951

j) Galarazita dago pertsonentzat edo/eta ingurumenarentzat kaltegarri izan daitekeen edozein motatako substantzia botatzea iturrietara edo bide publikora.

*13. artikulua. Debeku bereziak.*

1. Debekaturik dago bide publikoan ezein kirol edo aisialdi ekintzetan jardutea baldin eta pertsonei edo ondasunei kalterik edo eragozpenik egin diezaieketen gauzak edo tresnak erabiltzen badira, hartarako baimenduriko leku eta ordutegietan izan ezik. Plazetan berariaz adieraziko da zein lekutan dagoen debekatuta baloi, pilota, patin, patinete edo antzekoekin jolasean aritzea.

2. Debekaturik dago bide publikoan petardoak, bengalak edo jaurtikitzeko ezein tresnarik (arkuak, zerbatanak, tiragomak, etab.) erabiltzea.

3. Debekatuta dago ibilgailuek oinezkoen plazetatik zirkulatzea, berariazko baimena izan ezean.

*14. artikulua. Parke eta lorategi publikoak.*

1. Herritarren betebeharra da herriko parke eta lorategi publikoak errespetatzea.

2. Parke, lorategi eta lorontzietako landareak eta bide publikoetako zuhaitzak behar bezala zaintzeko, debekatuta daude honako hauek:

a) Landareak lapurtzea eta belarra hondatzea.

b) Zuhaitzak moztea, bakantzea (udal baimena izan ezik) edo apurtzea.

c) Zuhaitz azalean grabatzea, iltzeak jostea, eskailerak, tresnak, aldamio euskarriak, kartelak edo beste ezer jartzea, baita zuhaitzetara igotzea ere.

d) Aldi baterako baino ez bada ere, obra materialak jartzeaz uhaitzen kontra edo haien gainera ezein produktu toxiko botatzea.

Baldin eta beste aukerarik ez balego, obrako materialak pilatu daitezke, aldez aurretik udal baimena lortuta: material metatua erretiratu eta gero, lehen zegoen egoera berean utzi beharko da okupatutako espazioa.

e) Berde guneetan zaborrak, hondakinak, harriak, graba edo beste ezein produktu botatzea baldin eta halakoei kaltea egin badiezaieke edo estetika eta erabilera onak zapuzten baditu.

f) Gorozkiak uztea belarretan eta lorategietan.

g) Parke eta lorategietan sua piztea.

*15. artikulua. Drogak eta edari alkoholikoak kontsumitzea. Taldean edatea. Armak eta tresna arriskutsuak.*

1. Drogak eta edari alkoholdunak kontsumitzea eta armak edo tresna arriskutsuak eramatea edo erabiltzea alorrean alorreko indarreko arauen arabera izango da.

2. Agintaritzako agenteek berehala konfiskatuko dituzte drogak, substantzia sorgorgarriak, psikotropikoak eta arma eta tresna arriskutsuak.

3. Tabakoaren kontsumoari dagokionez, erabat galarazita dago udal esparru guztietan erretzea, salbuespen direla kanpokoak edo erretzaileentzat egokituriko esparruak. Erretzeko esparru berezirik xedatu ezean, udal egoitzetan ez da erretzerik egongo.

Nolanahi ere, tabakoaren kontsumoari dagokion guztia, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenari lotuta egongo da.

4. Taldean edatea debekaturik dago, baimendutako eremuetatik kanpo, baldin eta ekintza horrek herritarrei espazio publikoak erabiltzea oztopatzen badie.

j) Queda prohibido verter o arrojar en las fuentes o a la vía pública cualquier tipo de sustancia que pueda resultar perjudicial para las personas y/o para el medio ambiente.

*Artículo 13. Prohibiciones específicas.*

1. Se prohíbe la práctica en la vía pública de actividades deportivas o lúdicas en las que se utilicen objetos o instrumentos que pueden causar daños a las personas o bienes, o molestias a la ciudadanía, salvo en los lugares y en las zonas autorizadas para ello y en los horarios autorizados. En las plazas se indicarán las zonas en las que queda prohibido el uso de balones, pelotas, patines, patinetes o elementos similares.

2. Queda prohibida la utilización en la vía pública de petardos o bengalas y cualquier instrumento o artilugio que proyecte cualquier tipo de objeto, tales como arcos, cerbatanas, tiragomas etc.

3. Queda prohibida la circulación de vehículos por las plazas peatonales, salvo autorización expresa.

*Artículo 14. Parques y jardines públicos.*

1. Es obligación de la ciudadanía respetar los parques y jardines públicos del municipio.

2. Para la buena conservación y mantenimiento de las diferentes especies vegetales de parques, jardines, jardineras y árboles plantados en la vía pública, quedan prohibidos los siguientes actos:

a) La sustracción de plantas y dañar el césped.

b) Talar, podar (salvo autorización municipal previa) o romper árboles.

c) Grabar o pintar sus cortezas, clavar puntas, atar a las mismas escaleras, herramientas, soportes de andamiaje y colocar carteles.

d) Acopiar, aun de forma transitoria, materiales de obra sobre cualquiera de los árboles o verter en ellos cualquier clase de productos tóxicos.

En el supuesto de que no hubiera otra alternativa, se podrá realizar el acopio de materiales de obra previa autorización municipal: una vez retirado el acopio el espacio ocupado deberá ser restituido a las condiciones previas a la actuación.

e) Arrojar en las zonas verdes basuras, residuos, piedras, grava o cualquier otro producto que puedan dañarlas o atentar a su estética y buen uso.

f) Dejar excrementos sobre el césped y jardines.

g) Encender fuegos u hogueras en los parques y jardines.

*Artículo 15. Consumo de drogas y bebidas alcohólicas. Consumo de bebidas en grupo. Armas e instrumentos peligrosos.*

1. El consumo de drogas y bebidas alcohólicas, así como el portar y utilizar armas e instrumentos peligrosos, se ajustará a las normas contenidas en la legislación vigente en la materia.

2. Los y las Agentes de la Autoridad procederán al decomiso inmediato de las drogas, sustancias estupefacientes, psicotrópicas y de las armas e instrumentos peligrosos.

3. En lo referente al consumo de tabaco, se prohíbe fumar de forma absoluta en todas las dependencias municipales, salvo las que se encuentren al aire libre o en lugares habilitados para ello. En caso de que no se delimitaran esos lugares, se mantendrá la prohibición de fumar en dichas dependencias.

En cualquier caso, todo lo referente al consumo de tabaco estará sujeto a lo que se establezca en la legislación vigente en la materia.

4. Queda prohibido el consumo de bebidas en grupo, fuera de las zonas autorizadas, cuando ello genere molestias e imposibilite el disfrute de los espacios públicos por parte de otros usuarios.

EK\CV GAO-I-2024-05951

*16. artikulua. Eskaletzan jardutea.*

1. Debekatuta dago adingabeek udalerrian eskaletzan jardutea, beraz, adinez txikiak babestearen gaineko indarrean dauden legeen xedapenak bete beharko dira.

2. Debekatuta dago dirua edo limosna eskatzea modu behartuan, beldurtuta edo hitzez ala ekintzez gogaitarazita. Gainera, debekaturik dago gauza edo zerbitzuak diru truk eskaintzea modu behartuan, beldurra eraginez edo jokabide gogaikarria erabilita.

3. Agintaritzaren agenteek Udalaren edo beste erakunde batzuetako gizarte zerbitzuen berri emango diete behar duten pertsonei, behar duten sorospena eta laguntza eskatu ahal izan dezaten.

4. Udaleko gizarte zerbitzuek arreta emango diete bere egoeragatik lo egiteko aterpetxerik ez dutenei, beharrezko informazioa eta sorospena eskainiz beren eskumenen esparruan.

II. TITULUA

BIDE PUBLIKOAREN TXUKUNTASUNA

I. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA ERABILERA ARRUNTAREN ONDORIOZ GARBITU BEHARRA

I. ATALA. Bide publikoa herritarren erabilera ohikoaren ondorioz garbitu beharra

*18. artikulua. Udalaren eginbeharra.*

Udal zerbitzuen ardura da herriko espazio publikoak txukuntasun eta osasun baldintzetan izatea. Hori dela eta, Udalak behar bezain maiz beteko du zerbitzu publiko egokia, eta dagozkion jagon eta polizia eskumenak erabiliko ditu.

*19. artikulua. Herritarren eginbehar eta lankidetzak.*

1. Herritar guztiak behartuta daude herria eta, batez ere, gune publikoak txukun edukitzera.

2. Elurrik eginez gero, hiriko finka publiko zein pribatuen jabeek espaloietako elurra eta izotza garbitzen lagundu beharko dute fatxadaren besteko luzeran eta, gutxienez, 1,5 metroko zabaleran, espaloia estuagoa ez bada, elurra espaloi ertzean jarrita, zuhaitzei kalterik egin gabe eta hustubide zein estoldak oztopatu gabe.

3. Udal zerbitzuak eta udaltzaingoa noiznahi arduratuko dira herritarrei garbitasun alorreko eginbeharrak behar bezala betearazteaz, haiek eragin duten kaltea konpontzeko errekerimendua eginez, baita dagokion salaketa jarriaz ere.

*20. artikulua. Debeku bereziak.*

1. Debekaturik dago bide publikoa zikindu dezakeen ezer egitea, eta, batez ere, ondoko hauek daude galarazita:

— Ibilgailuak bide publikoan garbitzea.

— Bide publikoan kaka edo txiza egitea, eta txitua botatzea.

— Hondakin urbanoak eta zaborrak eskukatzea edo aukeratzea, horiek zabalduz, bilketa oztopatuz edo ontziak aldatuz.

— Bide publikora botatzea edo bertan uztea edozein hondakin, zabor edo paper-orritxoak.

— Ibilgailuen eta makineriaren olioa aldatzea edo/eta kaleak zikindu ditzakeen edozein likido maneiatzea.

— Bide publikoan ibilgailuak konpontzea.

*Artículo 16. Mendicidad.*

1. Se prohíbe el ejercicio de la mendicidad por los menores de edad dentro del término municipal, debiéndose estar a lo que disponga la legislación vigente en materia de protección de menores.

2. Queda prohibida la petición de dinero o limosna ejercida de forma coactiva, intimatoria o molesta de palabra u obra. Asimismo queda prohibido el ofrecimiento de objetos o servicios a cambio de dinero efectuado con maneras coactivas, intimidatorias o molestas.

3. Los y las Agentes de la Autoridad informarán a las personas que lo necesiten de la existencia de los Servicios Sociales, Municipales o de otras Entidades, a fin de que puedan solicitar el socorro y ayuda necesarios.

4. Los Servicios Sociales Municipales atenderán a las personas que, vista su situación, no dispongan de refugio para pernoctar, proporcionándoles la debida información y asistencia en el ámbito de sus competencias.

TÍTULO II

LIMPIEZA DE LA VÍA PÚBLICA

CAPÍTULO I. LIMPIEZA DE LA VÍA PÚBLICA POR SU USO NORMAL

SECCIÓN I. De la limpieza de la vía pública como consecuencia del uso común general de la ciudadanía

*Artículo 18. Obligación municipal.*

Edozein kartelek irizpide hauek errespetatu beharko ditu:

— Ez du izango iraingarria izan daitekeen ezer, eta errespetu osoz jokatuko du pertsonen eta kolektiboen oinarrizko eskubideekin. Dagokion txosten teknikoaren arabera balioetsiko dira irizpide horiek, eta gaiari dagokion sail teknikoak egingo du txostena.

— Kartelak zinta itsasgarriz jarriko dira, inoiz ez kolarekin.

— Ezin izango da kartelik jarri beste batzuen gainean, baldin eta kartel horiek oraindik indarrean badaude.

— Debekatuta dago horretarako baimendutako leku edo lekuetan dauden kartelak urratu, zikindu edo erauztea, baldin eta baliozkotasuna jarraitzen badute.

— Egokitutako panel edo leku bakoitzean, publizitate kartelek ez dute hartu behar panelaren azalera osoaren % 25 baino gehiago.

Horietako irizpideetako bat ez dela errespetatzen jabetzen bada udala, kartela/k kendu ahal izango du/ditu.

Baimendu gabeko lekuetan kartelak jartzeko baimena eskatzen denean, honako hauek jaso beharko ditu eskaerak:

— Kartelak jartzea sustatu duten pertsona fisikoen edo juridikoen identifikazio-datuak.

— Kartelaren edukia eta neurria.

— Non jarriko diren; eta, jabetza pribatuko tokiren batean jarriz gero, jabearen baimena.

— Zenbat denbora egongo diren jarrita.

— Kartelak kentzeko eta, kalterik eraginez gero, kalte horiek konpontzeko konpromisoa.

Kartelak xede horretarako egokitutako lekuetan jartzen badira, kartelak jarri dituenaren erantzukizuna izango da kartelak kentzea. Udalak ordenantza betetzen dela gainbegiratuko du, eta ordenantza betetzen ez duten edo indarraldia galdu duten kartelak kentzeko eskubidea gordeko du.

Kartelak xede horretarako egokitutako lekuetatik kanpo jarriz gero, kartelak berehala kenduko dira. Sustatzaile den pertsona fisikoak edo juridikoak horrelakorik egiten ez badu, udal-zerbitzuek kenduko dituzte, eta kostuak arduradunari egotziko zaizkio; horrez gain, dagozkion zigorrak ere jarri ahal izango zaizkio.

Horrelaxe jokatuko da kartelak ezartzeko baimenik eman ez denean edota baimenduta dagoena betetzen ez denean ere.

Artikulu honetan eta hurrengoetan jasotzen diren aurreikuspenak aplikagarriak zaizkie Alegiako Udalari berari eta gainerako erakunde eta instituzio publikoei ere.

3. Pankartak: udalak leku batzuk egokitu eta izendatuko ditu udalerri osoan pankartak jartzeko (II. eranskina: Egokitutako guneak).

Bai xede horretarako egokitutako tokietan eta bai baimena jaso dezaketen gainerakoetan pankartak jartzeko, udal-baimena beharko da nahitaez.

Udalak ahalmena izango du leku egokituetan aurrez ipinita dauden pankartak ipini gerora baimentzeko. Pankarta jarri den unetik hiru egun naturaleko epean eskatu beharko da baimena, gehienez ere.

Pankarta ezartzeko baimena lortzeko, egokitutako lekuetan pankartak jartzeko zehaztutako irizpideak bete beharko ditu, artikulu honetan xedatutakoaren arabera.

Pankartak jartzeko baimena honako kasu hauetan emango da:

— Kultura, arte edo kirol-ekitaldietan, kontzertuetan, ikuskizunetan eta erakusketetan.

Cualquier cartel deberá respetar los siguientes criterios:

— No deberán contener carácter ofensivo alguno, debiendo ser respetuosos con los derechos fundamentales de las personas y colectivos. La valoración de estos criterios se realizará conforme a informe técnico vinculante, que por circunscripción de la materia realizará el departamento técnico correspondiente.

— La colocación de los carteles se realizará con cinta adhesiva, nunca con cola.

— No podrán colocarse carteles sobreponiéndolos a otros que aún conserven su vigencia.

— Se prohíbe rasgar, ensuciar o arrancar aquellos carteles situados en los lugares o emplazamientos autorizados al efecto que mantengan su validez.

— En cada panel o lugar habilitado los carteles publicitarios no podrán ocupar más de un 25 % de la superficie total del panel.

En caso de que el Ayuntamiento constatara que no se respeta/n alguno/s de los criterios citados, éste podrá proceder a la retirada del/los cartel/es.

La solicitud para pedir autorización de colocación de carteles en lugares no autorizados deberá indicar:

— Los datos identificativos de las personas físicas o jurídicas promotoras de la colocación.

— Contenido del cartel y dimensiones.

— Sitios de colocación y de tratarse de propiedades privadas autorización del/a particular.

— El tiempo que permanecerán colocados.

— Compromiso de retirarlos y reparar los daños que pudieran ocasionar.

En el caso de los lugares que se habiliten para la colocación de los carteles, trascurrido el plazo de validez, será responsabilidad de quien haya colocado los carteles, la retirada de las mismas. El Ayuntamiento, supervisará el cumplimiento de la ordenanza, guardándose el derecho de retirar los carteles que incumplan la ordenanza o hayan perdido su vigencia.

En el caso de los carteles colocados fuera de los lugares habilitados al efecto, éstos se quitarán inmediatamente De no hacerlo así la persona física o jurídica promotora, serán retirados por los servicios municipales, imputándose a la persona responsable los costes, sin perjuicio de las sanciones a que hubiere lugar.

Idénticas consecuencias tendrá su colocación no autorizada y cuando no se ajusten a lo permitido.

Las previsiones contenidas en este artículo y en los correlativos serán aplicables al propio Ayuntamiento de Alegia y al resto de Instituciones y organismos públicos.

3. Pancartas: El Ayuntamiento habilitará e identificará a lo largo del municipio puntos en los que se pueden colocar pancartas (anexo II: Lugares habilitados).

Para la colocación de pancartas tanto en lugares habilitados al efecto, como en lugares no habilitados que puedan autorizarse, será necesario contar con autorización municipal.

El Ayuntamiento podrá resolver otorgar autorizaciones con posterioridad a la colocación de pancartas en lugares habilitados. La solicitud de la autorización deberá realizarse en el plazo máximo de 3 días naturales desde la colocación de la pancarta.

La autorización estará condicionada a que la pancarta cumpla con los criterios establecidos para la colocación de pancartas en lugares habilitados que se establecen en este artículo.

La autorización para la colocación de pancartas se concederá en los siguientes supuestos:

— Acontecimientos culturales, artísticos o deportivos, conciertos, espectáculos y exposiciones.

— Hauteskunde-kanpainetan.

— Eskubide zibil eta politikoen defentsarako helburua dutenean.

Udalak leku batzuk egokitu eta izendatuko ditu udalerri osoan pankartak jartzeko (II. eranskina: Egokitutako guneak).

— Salbuespenez, baimena eman daiteke bide publikoan pankartak jartzeko, lehen aipatu ez diren beste kasu batzuetan.

Edozein pankartak irizpide hauek errespetatu beharko ditu:

— Ez du izango iraingarria izan daitekeen ezer, eta errespetu osoz jokatuko du pertsonen eta kolektiboen oinarrizko eskubideekin. Dagokion txosten teknikoaren arabera balioetsiko dira irizpide horiek, eta gaiari dagokion sail teknikoak egingo du txostena.

— Debekatuta egongo da pankartak kaleargi eta zuhaitzetara lotzea.

— Lotzeko elementuek ez dute inola ere kaltetuko lotzeko erabiliko den objektua.

— Debekatuta dago pankartak urratzea, zikintzea edo kentzea, horretarako egokituta dauden leku baimenduetan.

— Pankartek azalera bat izango dute zulatuta, haizearen eragina gutxitzeko nahikoa, eta, kasu guztietan, zulatutako azalera hori ez da izango pankartaren % 25 baino txikiagoa.

— Pankartak bide publikoa zeharkatzen badu, gutxieneko altura 4,5 metro izango da.

Horietako irizpideetako bat/batzuk ez dela/direla errespetatzen jabetzen bada udala, pankarta/k kendu ahal izango du/ditu.

Pankartak jartzeko baimena eskatzen denean, honako hauek jaso beharko ditu eskaerak:

— Pankarta jartzea sustatu duten pertsona fisikoen edo juridikoen identifikazio-datuak.

— Pankartaren xedea eta tamaina.

— Pankarta jarriko den tokiaren kokapena, eta, jabetza pribatua bada, jabearen baimena.

— Lotura motaren definizioa, altuera, etab.

— Zenbat denbora egongo diren jarrita.

Egokitutako tokietan nahiz egokitu gabekoetan, pankarta jartzea sustatu duen pertsona fisikoa edo juridikoa arduratuko da berori kentzeaz. Horrelakorik egiten ez badu, udal-zerbitzuek kenduko dituzte, eta kostuak arduradunari egotziko zaizkio; horrez gain, dagozkion zigorrak ere jarri ahal izango zaizkio.

Horrelaxe jokatuko da pankartak baimenik gabe jartzen direnean edota baimenduta dagoena betetzen ez denean ere.

Artikulu honetan eta hurrengoetan jasotzen diren aurreikuspenak aplikagarriak zaizkie Alegiako Udalari berari eta gainerako erakunde eta instituzio publikoei ere.

4. Banderatxoak: banderatxoak jartzeko, udal-baimena behar da.

Banderatxoak jartzeko baimena eskatzen denean, honako hauek jaso beharko ditu eskaerak:

— Banderatxoak jartzea sustatu duten pertsona fisikoen edo juridikoen identifikazio-datuak.

— Banderatxoen xedea eta tamaina.

— Banderatxoak jarriko diren tokiaren kokapena, eta, jabetza pribatua bada, jabearen baimena.

— Lotura motaren definizioa, altuera, etab.

— Zenbat denbora egongo diren jarrita.

— Campañas electorales.

— Tengan por objeto la defensa de los derechos civiles y políticos.

El Ayuntamiento habilitará e identificará a lo largo del municipio puntos en los que se pueden colocar pancartas (anexo II: Lugares habilitados).

— De modo excepcional, podrá autorizarse la colocación de pancartas en la vía pública en supuestos diferentes a los señalados anteriormente.

Cualquier pancarta deberá respetar los siguientes criterios:

— No deberán contener carácter ofensivo alguno, debiendo ser respetuosos con los derechos fundamentales de las personas y colectivos. La valoración de estos criterios se realizará conforme a informe técnico vinculante, que por circunscripción de la materia realizará el departamento técnico correspondiente.

— Se prohibirá la sujeción de pancartas a farolas y árboles.

— Los elementos de sujeción en ningún caso deberán dañar el objeto al que se sujeten.

— Se prohíbe rasgar, ensuciar o arrancar pancartas situadas en lugares o emplazamientos autorizados al efecto.

— Las pancartas tendrán una superficie perforada suficiente para poder minorar el efecto del viento y, en todo caso, esta superficie perforada no será inferior al 25 % de la superficie de la pancarta.

— En el caso de que la pancarta atraviese una vía pública, la altura mínima será de 4,5 metros.

En caso de que el Ayuntamiento constatara que nos se respeta/n alguno/s de los criterios citados, éste podrá proceder a la retirada de la/s pancarta/s.

La solicitud para pedir autorización de colocación de pancartas deberá indicar:

— Los datos identificativos de las personas físicas o jurídicas promotoras de la colocación.

— Objeto y dimensiones de la pancarta.

— Ubicación del lugar donde se pretende/n colocar y en caso de tratarse de propiedades privadas, autorización del/a particular.

— Definición del tipo de sujeción, altura, etc.

— El tiempo que permanecerán colocadas.

Tanto en el caso de tratarse de lugares habilitados para su colocación, como para el caso de lugares no habilitados para ello, la persona física o jurídica promotora de su colocación estará obligada a su retirada. De no hacerlo así, serán retirados por los servicios municipales, imputándose a la persona responsable los costes, sin perjuicio de las sanciones a que hubiere lugar.

Idénticas consecuencias tendrá su colocación no autorizada y cuando no se ajusten a lo permitido.

Las previsiones contenidas en este artículo y en los correlativos serán aplicables al propio Ayuntamiento de Alegia y al resto de Instituciones y organismos públicos.

4. Banderolas: La colocación de banderolas requiere de autorización municipal.

La solicitud para pedir autorización de colocación de banderolas deberá indicar:

— Los datos identificativos de las personas físicas o jurídicas promotoras de la colocación.

— Objeto y dimensiones de la pancarta.

— Ubicación del lugar donde se pretende/n colocar y en caso de tratarse de propiedades privadas, autorización del/a particular.

— Definición del tipo de sujeción, altura, etc.

— El tiempo que permanecerán colocadas.

EK\CV GAO-I-2024-05951

Banderatxoak jartzea sustatu duen pertsona fisikoa edo juridikoa arduratuko da beroriek kentzeaz, baimenean adierazitako epea amaitu ondoren.

5. Esku-paperak: Ez dago baimenduta esku-paperak, testu inprimatuak edo antzeko materialak zabaltzea edo botatzea kalean, edo ibilgailuetan jartzea.

«Eskuz esku» baino ezin izango dira banatu esku-paperak.

6. Eranskailuak: debekatuta dago eranskailuak jartzea ondasun higiezinetan edo udal-altzari orotan.

7. Pintadak eta grafitiak: Debekatuta dago pintadak eta grafitiak egitea, bai bide publikoan eta bai eraikin publikoen edo partikularren fatxadetan, hiri-altzarietan, zuhaitzetan, estatuetan, monumentuetan eta, oro har, udalerriko edozein kanpo elementuren gainean.

Udalak pintadak edo grafitiak garbitzeko lanak egin ahal izango ditu ondasun higiezinetan, bere antolamenduaren eta programazioaren arabera, udalerria garbi gordetzeko eta behar bezala apainduta izateko; edo ondasun higiezinen jabeek edo herritarrek eskatuta ere joka dezake horrela.

Garbiketa horren ondorioz ondasun higiezinak kalteren bat izanez gero, udala salbuetsita dago erantzukizun guztietatik, betiere, lanak ondo gainbegiratuta eta udal-zerbitzuek horretarako dituzten baliabideak erabiliz egin badira.

Eraikin publiko batean, edozein jabetza publikotan edo hiri-altzarien elementu batean pintadak edo grafitiak egin direnean, edota paperak edo kartelak ezarri edo itsatsi direnean, horien kristalak urratu direnean edo berori hondatu duen beste ekintzaren bat jasan duenean, ardura hartu duen enpresari edo pertsonari egotz diezaioke udalak garbiketako edo berriro egokitzeko fakturen kostua; horrez gain, zigorra ere jaso dezake.

8. Horma-irudiak: horma-irudi artistikoak margotzeko, udalaren baimena beharko da.

Orubeen hesietan, obren itxituretan, hormetan, mehelinetan edo antzekoen gainean marraztu daitezke.

Horma-irudiak egiteko baimen-eskarian, honako hauek jaso behar dira:

— Horma-irudiak sustatu dituzten pertsona fisikoen edo juridikoen identifikazio-datuak.

— Zirriborroa eta horma-irudiren tamaina.

— Egin nahi diren tokiaren kokapena, eta, jabetza pribatua bada, jabearen baimena.

— Adierazpen artistiko libreko espazioen garbiketa aldirokoa izango da, eta eremu horretan bertan adieraziko du aldirokotasuna; horrez gain, udalak hura garbitu ahal izango du adierazpen artistiko errespetu gabeak sumatzean edo pertsona eta kolektiboen oinarrizko eskubideak errespetatzen ez direnean. Dagokion txosten teknikoaren arabera balioetsiko dira irizpide horiek, eta gaiari dagokion sail teknikoak egingo du txostena.

*45. artikulua. Eraikin bereziak.*

1. Eraikin katalogatuetan, historiko-artistikoetan eta esanguratsuetan ez da inolako publizitaterik onartuko, eta ezingo da kartelik, banderatxorik edo errotulurik erakutsi; salbuespen izango direla eraikinaren ezaugarrien berri ematekoak, eraikineko jardueren berri ematekoak edo zaharberritzeko edo birgaitzeko lanen berri ematekoak.

II. KAPITULUA. URBANIZAZIOAK ETA ORUBEAK GARBITZEA

*46. artikulua. Espazio pribatuak garbitzea.*

1. Urbanizazio pribatuetako espaloi, igarobide, galtzada, plaza eta lorategiak garbitu beharra jabeena da.

La persona física o jurídica promotora será la encargada de retirar la/s banderola/s una vez finalizado el plazo de colocación que se indicará en la autorización.

5. Octavillas: No está permitido esparcir, tirar sobre la vía pública, o colocar en vehículos ninguna clase de octavillas, textos impresos o materiales similares.

Únicamente será posible el reparto de octavillas «mano a mano».

6. Pegatinas: La colocación de pegatinas en inmuebles o cualquier tipo de mobiliario municipal está prohibida.

7. Pintadas y grafitis: Quedan prohibidas las pintadas y grafitis tanto en la vía pública como en fachadas de edificios públicos o particulares, mobiliario urbano, arbolado, estatuas, monumentos y, en general, sobre cualquier elemento externo del municipio.

El Ayuntamiento podrá efectuar los trabajos de limpieza de pintadas y grafitis en inmuebles, según su propia organización y programación para mantener en las debidas condiciones de limpieza y ornato público el municipio, o a requerimiento de las propietarias de los inmuebles y la ciudadanía.

El Ayuntamiento quedará eximido de toda responsabilidad ante cualquier daño que fruto de esa limpieza pudiera sufrir dicho inmueble, siempre que los trabajos hayan sido supervisados de manera correcta y realizados con los medios de que disponen los servicios municipales.

Cuando un edificio público, cualquier otra propiedad pública o elemento del mobiliario urbano haya sido objeto de pintadas, grafitis, colocación o pegado de papeles o carteles, se hayan rayado sus cristales, o se produzca cualquier otro acto que lo deteriore, el Ayuntamiento podrá imputar a la empresa o persona responsable el coste de las correspondientes facturas de limpieza y acondicionamiento, al margen de la sanción que corresponda.

8. Murales: El pintado de murales artísticos requerirá autorización municipal.

Podrán ir dibujados sobre vallas de solares, cierres de obras, paredes, medianeras y similares.

La petición solicitando autorización para la realización de murales deberá indicar:

— Los datos identificativos de las personas físicas o jurídicas promotoras.

— Boceto y dimensiones del mural.

— Ubicación del lugar donde se pretende/n realizar, y en caso de tratarse de propiedades privadas, autorización del/a particular.

— La limpieza de los espacios de libre expresión artística será periódica y su regularidad se señalará en la propia zona, sin perjuicio de la potestad del Ayuntamiento para proceder a la limpieza de la misma cuando se detecten expresiones artísticas irrespetuosas o que no respeten los derechos fundamentales de personas y colectivos. La valoración de estos criterios se realizará conforme a informe técnico vinculante, que por circunscripción de la materia realizará el departamento técnico correspondiente.

*Artículo 45. Edificios singulares.*

1. En los edificios catalogados, histórico-artísticos y otros que sean emblemáticos, no se admitirá ninguna clase de publicidad, ni se podrán exhibir carteles, banderolas o rótulos, excepto los que informen de sus características, hagan referencia a las actividades que en el edificio se desarrollen o se refieran a sus obras de reforma o rehabilitación.

CAPÍTULO II. DE LA LIMPIEZA DE URBANIZACIONES Y SOLARES

*Artículo 46. Limpieza de espacios privados.*

1. La limpieza de aceras, pasajes, calzadas, plazas y jardines de las urbanizaciones privadas corresponde a las personas propietarias.

EK\CV GAO-I-2024-05951

2. Jabea barruko patioak, orubeak eta abarrak garbitzera behartuta daude.

3. Udalak elementu pribatu horien guztien garbitasun egoera kontrolatuko eta ikuskatuko du, eta arduradunei haiek garbitzeko eskatuko die, hartarako udal zerbitzuek emandako jarraibideen arabera.

4. Merkataritza lokalen jabeek fatxadak egokitu beharko dituzte eraikinaren apaindura, zainketa eta ezaugarrien arabera, indarrean dagoen araudiak gai horretaz xedatutakoen arabera.

*47. artikulua. Orube eta lursail pribatuak.*

1. Orube eta lursailen jabeek hondakinik eta zaborrik gabe edukiko dituzte, osasun, higiene, segurtasun eta apaindura publikoaren baldintza egokietan. Gainera, enpresa baimendu bidez karraskariak eta intsektuak hiltzeko tratamenduak aplikatuko dizkiete.

2. artikulu honetako lehen paragrafoan xedaturiko egoera gertatzen ez bada edo era nabarmenean jabeak egon ezean, Udalak halakoaren ordez ekingo dio, legezko mugakizunen arabera, neurri egokiak hartzeari, aurreko paragrafoan adierazitako helburuak lortzeko sail hartara sartzea ere izango duela, jabeari leporatuko dizkiola hala jokatu beharrak eragindako gastuak.

3. Edozein hirigintza-jarduketa marko baten barruan aurkitzen diren aurre egoerako eraikinek hormaz hesituta egon beharko dute, hain zuzen ere hangoak ez diren pertsonei sarbidea galarazteko.

IV. TITULUA

ZIGORRAK

I. ATALA. Arau hausteak

*48. artikulua. Arauak haustea.*

1. Administrazio lege haustea izango da Ordenantza honetako xedapenak eta ezartzen dituen debekuak haustea.

2. Ordenantza honetan xedatutakoaren arau-hausteak alkateak zehatuko ditu, titulu honetan ezarritakoaren arabera, legeriak baimentzen dituen mugen barruan eta kasu bakoitzean egon daitezkeen erantzukizun zibil eta penalei kalterik egin gabe.

*49. artikulua. Lege hauste motak.*

1. Arau hausteak arinak, larriak eta larri-larriak izan daitezke, kontuan izanik asmoa, jokabidearen zibismo eza, utzikeri maila, pertsonen osasunerako eta segurtasunerako arriskua, eragindako kaltearen larritasuna eta lehenengo aldia ez izatea.

2. Horiek horrela, lehenengo aldia ez dela iritziko diote aurreko hamabi hilabeteotan zigorrik jaso badu zio bera dela bitarte behin edo gehiagotan.

3. Arau hauste arintzat joko dira artikulu hauek haustea: 8.3., 12.2. (a, b eta c salbu), 13, 14.2. (b, d eta e salbu), 17, 20.1.º, 21.2.º, 22.2.º, 23, 26, 27, 29, 30, 31.1.º, 32, 33, 34, 35, eta 38.

4. Urratze larritzat joko da artikulu hauek haustea: 14.2. d) (obra materialak pilatzea soilik), 14.2. e), 36, 37, 38, 39, 40, 41.3.º, 41.4.º, 43.2, 45, 46 y 47.

Arau-hauste larritzat joko da ordenantza honetako xedapenak bete beharraren inguruan Agintaritzaren agenteek emandako agindua ez betetzea, betiere arau-haustea zigor kodean jasotakoetakoak ez bada. Gainera, arau-hauste arina berriro egitea hauste larritzat joko da.

2. Será obligación de las personas propietarias la limpieza de patios interiores, solares particulares y similares.

3. El Ayuntamiento ejercerá el control e inspección del estado de limpieza de todos estos elementos privados, y requerirá a las personas responsables para su limpieza, de acuerdo con las instrucciones que al efecto dicten los servicios municipales.

4. Las personas propietarias de locales comerciales adecuarán sus fachadas en cuanto a ornato, mantenimiento y características de edificación de acuerdo con las especificaciones que a tal fin establezca la normativa vigente.

*Artículo 47. Solares y terrenos privados.*

1. Las personas propietarias de solares y terrenos deberán mantenerlos libres de desechos y residuos, y en las debidas condiciones de salubridad, higiene, seguridad y ornato público. Deberán, asimismo, proceder a desratizarlos y desinsectarlos mediante empresa autorizada.

2. En caso de que no se produzca la situación prevista en el primer párrafo del presente artículo, o de ausencia manifiesta de las personas propietarias, el Ayuntamiento procederá, con carácter subsidiario y con las limitaciones legales de rigor, a tomar las medidas adecuadas a estos efectos, pudiendo acceder al terreno con los fines expresados en el párrafo anterior, imputándose a las personas propietarias los costes que se ocasionen.

3. Los edificios en estado de ruina que se encuentren dentro del marco de cualquier actuación urbanística deberán estar debidamente tapiados al objeto de impedir el acceso a personas ajenas a los mismos.

TÍTULO IV

RÉGIMEN SANCIONADOR

SECCIÓN I. Infracciones

*Artículo 48. Infracciones.*

1. Constituye infracción administrativa el incumplimiento de las disposiciones que contiene esta Ordenanza y la vulneración de las prohibiciones que en ella se establecen.

2. Las infracciones de lo dispuesto en esta Ordenanza serán sancionadas por el/la Alcalde/sa, de acuerdo con lo establecido en el presente Título, dentro de los límites que la legislación autoriza y sin perjuicio de las responsabilidades civiles y penales a que hubiere lugar en cada caso.

*Artículo 49. Clases de infracciones.*

1. Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves, atendiendo a la intencionalidad, falta de civismo en el comportamiento, grado de negligencia, riesgo para la salud y seguridad de las personas, gravedad del perjuicio causado y reincidencia.

2. A estos efectos, se considerará que existe reincidencia cuando la persona infractora hubiese sido sancionada en los doce meses precedentes, por el mismo concepto, una o más veces.

3. Serán consideradas como leves las infracciones a los siguientes artículos: 8.3.º, 12.2.º (excepto a, b, c), 13, 14.2.º (excepto b, d y e), 17, 20.1.º, 21.2.º, 22.2.º, 23, 26, 27, 29, 30, 31.1.º, 32, 33, 34, 35, y 38.

4. Serán consideradas como graves las infracciones a los siguientes artículos: 14.2.º d) (únicamente acopio de materiales de obra), 14.2.º e), 36, 37, 38, 39, 40, 41.3.º, 41.4.º, 43.2, 45, 46 y 47.

Tendrá la consideración de infracción grave la desobediencia a una orden dada por los y las Agentes de la Autoridad con relación a la exigencia de cumplimiento de las determinaciones de la presente Ordenanza, siempre que la misma no reúna la cualidad de infracción de carácter penal. Además, la reincidencia en la comisión de una infracción leve se considerará infracción grave.

EK\CV GAO-I-2024-05951

5. Urratze larri-larritzat hartuko da artikulu hauek haustea: 14.2. b), 14.2. d) (produktu toxikoak isurtzea soilik), 20.4., 41.1 eta 44.

Gainera, hauste larria berriro egitea hauste larritzat joko da.

*50. artikulua. Zigorrak.*

1. Arau hauste arinek 50 eta 200 euro bitarteko isuna jasoko dute, larriek 201 eta 500 bitartekoa eta larri-larriek 501 eta 3.000 bitartekoa.

Zenbateko horiek aplikatuko dira sektorean sektoreko arauek xedatzen dituztenez gain.

2. Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, eta honekin bat etorriz, ordenantza hau betetzen ez duten kasuetarako, zigor gisa inolako kantitaterik zehaztuta ez badago, 50 eta 200 euro arteko isuna izango dute.

3. Ezar litezkeen isunez zain, jabari publikoko ondasunei egindako kalteak eta eragindako ondorio txarrak ere ordaindu egin beharko dituzte, hori guztia udaleko zerbitzu eskudunek kalteen zenbatekoa ebaluatu ondoren. Kalte eta galera horien zenbatekoa nahitaez bete behar moduan xedatuko du zigorra ezartzeko eskumena duen organoak.

4. Arau hauste larri eta larri-larrietan behin eta berriro eroriz gero, arau hausleari desgaikuntza aitor lekioke udal baimen eta emakiden onuradun izateko, urtebetetik hiru urtera bitarteko epe barruan.

5. Agintariek Ordenantza hau haustean erabilitako tresnak, salgaiak, materiala eta tresnak konfiskatu ahal izango dituzte, bai eta arau-haustea egitean lortutako emaitza ere, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

*51. artikulua. Borondatezko lana isunaren ordez.*

1. Isun ekonomikoen ordez, beste aukera hauek ere erabil litezke: Kaltea konpontzea eta borondatezko lana egitea.

2. Arau hausleak eragindako kalte materiala bere borondatez eta zigor espedienteari hasiera eman aurretik konpondu baldin badu, aurretiazko informazio aldian eskaera egin dezake espedienteari ez ekiteko, beti ere Udala jakitun ez badago arau hausleak behin eta berriro gizabidearen aurkako jokabidea izaten duela.

3. Arau hauste baten ondorioz gainontzeko herritarrei eragindako kalteak ahal den neurrian konpontzeko, arau hausleak eskaera egin dezake, isunaren ordez gainerako herritarrentzat onurako eta borondatezko lanak egiteko konpromisoa hartuz, dela jokabide zibikoak sorraraztekoak, dela antzeko ekintzek eragindako kalteak konpontzekoak. Lanak borondatezkoak izango direnez gero, ez dira zigortzat hartuko.

II. ATALA. Erantzuleak

*52. artikulua. Erantzuleak.*

1. Ekintza publikoetan antolatzailea edo sustatzailea izango da erantzule.

2. Adin txikiko batek ordenantza honen xedapenak hausten baditu, erantzule izango dira gurasoak edo adin txikikoa zaintzen duten nagusiak.

3. Sustatzaileak eta kontratistak, biok-biotara, izango dute obrek bide publikoan eragindako zikinkeria kentzeko erantzukizuna, baita ibilgailuek zamalanetan edo obra sarrera-irteeretan sortutakoarena ere.

5. Serán consideradas como muy graves las infracciones a los siguientes artículos: 14.2.º b), 14.2.º d) (únicamente vertido de productos tóxicos), 20.4.º, 41.1.º y 44.

Además, la reincidencia en la comisión de una infracción grave se considerará infracción muy grave.

*Artículo 50. Sanciones.*

1. A las infracciones leves se les aplicará una sanción de multa de 50 a 200 euros; a las graves, de 201 a 500 euros; y a las muy graves de 501 a 3.000 euros.

Estas cuantías serán de aplicación sin perjuicio de las sanciones que la normativa sectorial correspondiente pueda establecer.

2. Cualesquiera otros incumplimientos a la presente Ordenanza que, conforme a lo establecido en el artículo precedente en concordancia con el presente, no tengan señalada específicamente cuantía económica como sanción, serán sancionadas con multa de 50 a 200 euros.

3. Con independencia de las sanciones que pudieran imponerse, deberán ser objeto de adecuado resarcimiento los daños que se hubieran irrogado en los bienes de dominio público, así como los perjuicios que se hubieran causado, todo ello previa su evaluación por los servicios municipales correspondientes. El importe de estos daños y perjuicios se fijará ejecutoriamente por el órgano competente para imponer la sanción.

4. En caso de reincidencia en infracciones graves o muy graves se podrá declarar la inhabilitación de la persona infractora para ser titular de autorizaciones y concesiones por un plazo de uno a tres años.

5. Las Autoridades podrán decomisar, tanto los útiles, mercancías, material e instrumentos empleados en la comisión de las infracciones a la presente Ordenanza, como el resultado obtenido en la comisión de la infracción, de acuerdo con lo previsto en la normativa vigente.

*Artículo 51. Los trabajos voluntarios alternativos a las sanciones.*

1. Se establecen como fórmulas alternativas a la imposición de sanciones económicas las siguientes: La reparación del daño y los trabajos voluntarios.

2. Cuando la persona infractora haya reparado el daño material causado, de forma voluntaria y antes de haberse iniciado el expediente sancionador, podrá solicitar en período de información previa que no se incoe el mismo, siempre y cuando no exista conocimiento por parte del Ayuntamiento de una actitud reiteradamente incívica por parte del infractor.

3. Con el fin de reparar en la medida de lo posible los daños causados al resto de la ciudadanía como consecuencia de una infracción, la persona infractora podrá solicitar la condonación de la sanción, comprometiéndose a la realización de trabajos voluntarios en beneficio del resto de la comunidad, dirigidos o bien a generar conductas cívicas o a reparar los daños causados por acciones similares. Dado el carácter voluntario de estos trabajos, no será considerada una sanción.

SECCIÓN II. Responsables

*Artículo 52. Responsables.*

1. En los actos públicos será responsable la persona organizadora o promotora de los mismos.

2. En caso de que un o una menor contravenga lo prescrito en esta Ordenanza, se considerarán responsables sus progenitores o las personas mayores bajo cuya custodia se encuentren.

3. Corresponderá a la persona promotora y al o la contratista, solidariamente, la responsabilidad de la limpieza de la vía pública afectada por sus obras, incluida la suciedad producida por los vehículos en operaciones de carga, descarga, salida o entrada de las obras.

EK\CV GAO-I-2024-05951

4. Ibilgailuaren jabea eta gidaria 28. eta 39.1. artikuluetan jasotako hausteen erantzule izango dira.

5. Animalien jabeak edo horien eramaileak izango dira animaliak sortzen dituen kalte, pertsonen eta gauzen gaineko afekzioen eta zikinkeriaren erantzule.

6. Kanpoko publizitateari dagokionez, erantzule iragarlea gertatuko da.

7. Gainerako baldintzetan erantzule izango da ordenantza honetan xedaturikoa hausten duen lagunak berak.

III. ATALA. Kaltea konpontzea eta berriro ere garbi uztea

*53. artikulua. Kalteak konpontzea.*

1. Hausleek sortutako kalteak beti konpondu beharko dituzte erantzuleek.

2. Arauzko zigor espedientea abiarazi aurretik, Udalak behar beste ekintza egin ahal izango du gauzak arau haustea gertatu baino lehen zeuden moduan uzteko, betiere obligazioa duen pertsonaren kontura, eta gainera dagozkion zigorrak baztertu gabe.

3. Ordenantza honetan agindutakoa urratzen duten egintza gori-goriak bertan behera uzteko aginduko dute udal-langileek, eta arau-hausle desobeditzaileek egintza horiek gauzatzen jarraitzea eragotzi beharko dute, dagokion zehapenari kalterik egin gabe.

IV. ATALA. Prozedura

*54. artikulua. Zigor prozedura.*

1. Isunak ezarriko dira legezko jardunbidea edo gai horren gaineko zigor ahalmena erabiltzeko araudiek ezarritakoa erabilita.

2. Zigor prozedurari hasiera emateko eskumena duen organoak jakiten duenean ekintza horiek administrazio arau haustea ez ezik, zigor kodeko haustea ere izan litezkeela, auzitegiko organo eskudunari jakinaraziko dio, eta hasitako zigor prozedura bertan behera utziko du, auzitegi agintariak ebatzi bitartean.

Zigor prozedura bertan behera geldirik dagoen bitartean, haustea eta prozedura bera iraungitzeko epeak ere bertan behera gelditutа daudela ulertuko da.

*Azken xedapena.*

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera hartuko du indarra ordenantza honek.

I. ERANSKINA

Kartelen eremuak:

— Larraitz 9.

— Larraitz 2.

— Bideberrieta 7.

— Aralar 8 (Kultur Etxea).

— Enparantza Nagusia.

— Parke haundia (Erbeta).

— Bideberrieta 21 (Elizpe Zinea, San Juan 58).

— Zubi berria (Bulebarreko jeitsiera).

4. En las infracciones tipificadas en los artículos 28 y 39.1 serán responsables solidaria la persona propietaria y la persona que conduzca el vehículo.

5. Las personas propietarias, y subsidiariamente las personas que conduzcan animales, son responsables de los daños o afecciones a personas o cosas y de la suciedad causada por el animal.

6. De las infracciones referentes a la publicidad exterior responderá el o la anunciante.

7. En los demás supuestos será responsable quien vulnere personalmente lo establecido en la presente Ordenanza.

SECCIÓN III. Reparación del daño y ejecución de la reposición del estado de limpieza

*Artículo 53. Resarcimiento de los daños.*

1. Los daños ocasionados por las personas infractoras serán siempre resarcidos por las personas responsables.

2. El Ayuntamiento, previa incoación del correspondiente expediente sancionador, podrá ejecutar, a costa de la persona obligada, los actos precisos para reponer las cosas al estado en que se encontraban antes de la infracción, sin perjuicio de las sanciones correspondientes.

3. Los/las trabajadores Municipales ordenarán que cesen los actos flagrantes que contravengan lo preceptuado en esta Ordenanza y deberá impedir que las personas infractoras desobedientes continúen ejecutándolos, sin perjuicio de la sanción que corresponda.

SECCIÓN IV. Procedimiento

*Artículo 54. Procedimiento sancionador.*

1. La imposición de sanciones se ajustará al procedimiento legal o reglamentariamente establecido para el ejercicio de la potestad sancionadora en esta materia.

2. Cuando el órgano competente para iniciar el procedimiento sancionador tuviera conocimiento de que los hechos, además de poder constituir una infracción administrativa, pudieran ser constitutivos de una infracción penal, lo comunicará al órgano judicial competente, absteniéndose de proseguir el procedimiento sancionador, una vez incoado, mientras la autoridad judicial no se haya pronunciado.

Durante el tiempo que estuviera en suspenso el procedimiento sancionador, se entenderá suspendido tanto el plazo de prescripción de la infracción como la caducidad del propio procedimiento.

*Disposición final.*

Esta Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

ANEXO I

Zonas de carteles:

— Larraitz 9.

— Larraitz 2.

— Bideberrieta 7.

— Aralar 8 (Casa de Cultura).

— Plaza Principal.

— Parque grande (Erbeta).

— Bideberrieta 21 (Cine Elizpe, San Juan 58).

— Puente nuevo (Bajando hacia el Bulebar).

EK\CV GAO-I-2024-05951

II. ERANSKINA

Pankarten eremuak:

— Bulebar aldeko ibaiko baranda.

— Tren-geltokiko baranda.

ANEXO II

Zonas de pancartas:

— Barandilla del río de la zona de Bulebar.

— Barandilla de la estación de tren.

EK\CV GAO-I-2024-05951